

LITERATURA. Gazteentzako Ekin sailean hiru liburu berri kaleratu ditu argitaletxeak

Hilketa batean oinarrituriko eleberri beltza kaleratu du Migel Angel Mintegik

Ibaizabal argitaletxearen eskutik eman du argitara 'Denak du bere prezioa' hirugarren lana


Arantxa Elizegi | DONOSTIA

Prostituzioa, hilketa bat, detektibeak eta politikarien arteko gorabeherak dira Migel Anjel Mintegik idatzi berri duen liburuaren gai nagusiak. Horiak denak izenburu baten inguruan biltzen dira: *Denak du bere prezioa*. Nobela beltz gisa definitu du idazleak lan hori.

Detektibea da Mintegiren liburuko protagonista, baina ikertzaile hori ez da inolako heroia, lanik gabe geratu eta bere kabuz lan horretan hasi den gizona bat baizik. Bere emaztea hiltzeagatik kartzelan dagoen gizon baten errugabetasuna frogatzea izango da bere lana.

Istorioa bi zatitan banatu du idazleak: *Ilehoria* eta *Txostena*. Lehen zatian, prostituzio munduan mugitzen da protagonista, eta bigarrenean, berriz, izen hobeagoko baina izate okerragoko jendearen artean. Hori guztia estilo zuzenean kontatzen du. Gustukoaren dituen lanak hartu ditu horretarako adibide. Mintegiren arabera, «ezinezkoa da Hamleten kopia egitea, baina, hala ere, antzeko zerbait egiten saiatu naiz». Nobela klasikoaren ildo jarraituz elkarriketen bitartez bideratu du Mintegik eleberri hori. «Denbora asko eskatu» dio istorioak, «aldaketa asko izan baititu».

Gazte eta helduentzako liburuak idazten ditu batez ere Min-



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Seigarren liburua du Migel Anjel Mintegik *Denak du bere prezioa*; hirugarrena, helduentzat.

tegik, eta helduentzakoetan hirugarrena du hau, aurretik *Udazkena* eta *Eske mila Marlowe* kaleratu baititu. Lehen lanarekin Irun Hiria saria eskuratu zuen. Denetarik egin du, baina nobela beltzarekin lotzen dute batez ere haren lana, «baina hori gutxienezkoa da. Kontua ez da molde batekoa edo bestekoa izatea, pertsonaiaren larruan sartzea baizik». Orain, berriz, *Denak du bere prezioa* kaleratu berri du, baina jadanik bere hurrengo proiektuan ari da lane-

an. Oraingo honetan ekologistei buruzko istorio batean dabil buru-belarri.

Misteriozko beste hiru

Joxemari Iturralde, Iñaki Frierak eta Fernando Murillok idatzitako hiru liburu ere kaleratu ditu Ibaizabalek gazte literaturako Ekin sailean. Iturraldeklaseko mutilei aurre egin eta gertaera misterioitsuak argitu behar dituen neska baten abenturak kontatzen ditu *Azken urtea lizeoan* eleberrian.

Abenturazkoa da Iñaki Frieraren *Ahots isilduaren bahiketa* lana ere. Martin eta Edurnek Asierren bahiketa argitu behar dute. Haur pornografia, prostituzioa eta diru kontuak dira bahiketa horren erantzun posibleak. Fernando Morillok, berriz, *Dorretxe zaharreko misterioa*-rekin magiaz, mamuez eta antzeko beste pertsonaiez gain, maitasuna ere lantzen du. Misterioz eta menturaz beteriko hiru liburu dira, beraz, Ibaizabalek kaleratu dituenak.

MUSIKA. Ibilbide profesional oso bat eta musikako ikerkuntza sustatzen duten lanak saritu dituzte

Erredakzioa | DONOSTIA

Esteban Elizondo organo jotzaileak eta Tomas Aragues konpositoreak jaso dituzte Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) eta Donostiako Orfeoia elkarlanean antolatzen duten lehiaketako bigarren ekitaldiko sariak. Aipamen horien helburua musikako ikerkuntza sustatzea eta musika sorkuntzako ibilbide profesionala goratzea da.

Esteban Elizondoren *La organería romántica en el País Vasco y Navarra (1856-1940)* izeneko ikerkuntza saritu du bigarren ekitaldi horrek. Jose Maria Etxarri Donostiako Orfeoiko presidentearen eta Lander Sarasola EHUko errektoreordearen eskutik jaso zuen Eli-

EHUK eta Donostiako Orfeoia Tomas Aragues eta Esteban Elizondo saritu dituzte

zondok 3.000 euroko saria. Sarasolak Elizondok eginiko lana nabarmendu zuen: «Organototzaile honen lanean konstante bat da eragin erromantikoa duten Hegoaldeko sortzaileen lana ezagutaraztea». EHUK barrutik ezagutzen du Elizondoren lana, orain dela hiru urte Ohorezko Irakasle Laguntzaile izendatu baitzuten, eta EHUko zerbitzu argitaratzaileak plazaratu du atzo saritu zuten lana.

Elizondok «biziki» eskertu zuen jasotako gorazarrea, eta

azaldu zuen dagoeneko Dani-markatik eta Bruselatik eskatu diotela lan hori, «Euskal Herrian dagoen organo erromantikoko bildumarik garrantzitsuenak da nik azaltzen dudana», adieraz zuen. Elizondok Hegoaldeko organo ondarearen inguruko ikastaro ugari eman izan ditu.

Aragues edo Teruelen jaioetako euskalduna

Tomas Aragues Bernard Teruelen jaioetako konpositoreak ere «oso gustura» jaso zuen

bi euskal erakundeek eman zioten saria, «ni neu ere euskalduna sentitzen naiz, bizi osoan hemen bizitzea eta lan egitea egokitu baitzait».

Donostiako Orfeoia eta EHUK bere ibilbide luzea goratu zuten. Musikariak 400 obra tik gora ekoitzi ditu, horien artean, *Juventud* (1957), *Gure etxea* (1963), *Suite Clasica* (1980), *Jimmy Potxolo* (1997) eta *Vita* (1999) nabarmendu zituen saria ematea egokitu zitzaion epaimahaiak. Atzo jasotakoaz gain, Araguesek errekonozimendu ugari izan ditu han eta hemen, horietan guztietan garrantzitsuenak Erromako Nazioarteko Konposizio Saria izan zen, 1980an eskuratu zuena.

euskararen
donostia
patronatua



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

—haur txoko eta gaztelekuak

•• EGIAKO HAUR TXOKOA

Atotxako dorrea, solairuartera
Tel.: 943 28 90 68

•• BIDEBIETAKO HAUR TXOKOA "KABIA"

Juan Carlos Guerra z/g.
Tel.: 943 39 00 05

•• AINTZIETAKO HAUR TXOKOA (TXOMIN ENEA)

Aintzieta pasealekua, 8
Tel.: 943 47 01 87

•• ROTETA HAUR TXOKOA

Roteta goikoa, 4
Tel.: 943 35 72 11 / 35 16 48

•• INTXAURRONDO BERRI

Buztintxulo, 49-53
Tel.: 943 32 12 32

•• KONTADORES GAZTEGUNEA

Pasai San Pedro ibilbidea, 13
Bidebieta
Tel.: 943 39 01 22

•• MARTUTENEO GAZTELEKUA

Martutene ibilbidea, 48
Tel.: 943 46 64 92

•• EGIAKO GAZTE LOKALA

Karmengo Andre Maria, 60
Tel.: 943 32 21 97

•• BIDEBIETAKO GAZTE TXOKOA

Juan Carlos Guerra z/g.
Tel.: 943 39 48 90